

TITULARRAK	ADIERAZLEAK	Azken data	Δ Urte artekoa (%) <small>*aurreko aldia</small>	Azken datuaren data
<ul style="list-style-type: none">Afiliatuen kopuruak -% 1,2 egin du behera hilerik hiler, eta 2.217 enplegu gutxiago daude hilabetean. Abuztuan 21.717 langabe erregistratu dira, aurreko hilean baino % 1,5 gehiago. Erregistratutako kontratuak -% 1,9 jaitsi dira urtetik urtera.Azalera handietako eta elikagaien kateetako salmentek urte arteko % 0,7ko igoera izan dute abuztuan.Zerbitzuen sektorean, bigarren hiruhilekoaren amaieran, urtetik urterako % 1,6ko hazkundea izan dute salmentek. Sektoreko enplegua % 0,7 hazi da.Bizkaiko BPGd-a % 1,9 handitu da urtetik urtera, eta % 0,4 hiruhilekotik hiruhilekora.Hoteletako gauak -% 3,3 jaitsi dira, eta bidaiarien sarrera -% 1,8. Atzerriko turistek baino ez dute gora egin, % 2,7 igo baita 2023ko abuztuarekin alderatuta.Bilboko aireportuan 668.814 bidaiari erregistratu dira abuztuan, hau da, urte arteko % 0,7ko gorakada egon da, eta serieko daturik onena lortu da abuzturako.Bilboko Portuan 2,4 milioi tonako trafikoa erregistratu da abuztuan, hau da, % 4,5 murrizketa egon da 2023ko hilabete berarekin alderatuta.	<p>Lan-merkatua</p> <p>Afiliatuak (kop.) 189.067</p> <p>Erregistratutako langabeak (kop.) 21.717</p> <p>Erregistratutako kontratuak 9.460</p> <p>Merkataritza</p> <p>Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2021. urtea = 100eko oinarria) 91,9</p> <p>Turismoa</p> <p>Bidaiarien sarrera (kop.) 125.543</p> <p>Ostatu-gauak (kop.) 260.625</p> <p>Ekonomia eta enpresa</p> <p>Bizkaiko BPGd (2022. urtea = 100eko oinarria) 104,0</p> <p>Zerbitzuak: salmenta-indizea (2021. urtea = 100eko oinarria) 125,4</p> <p>Garraioa</p> <p>Bidaiarien aireko garraioa (kop.) 668.814</p> <p>Salgaien itsas garraioa (milioi tona) 2,4</p>			

DATU BAT

Urte arteko **% 1,9**

Bizkaiko BPGd-a

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia

Abuztuan 330 langabe gutxiago erregistratu ziren, hau da, hiletik hilera % 1,5 gehiago, eta 21.717 langabe daude udalerrian.

Langabezia-tasa hazi egin da gizonen eta emakumeen artean, % 1,1 eta % 1,9, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, hilabete amaieran 105 gizon langabe eta 225 emakumezko langabe zeuden.

Adin-tarteen arabera, langabeziak behera egin du gazteenen artean (-% 2,2 eta 41 gutxiago) eta gora egin du gainerako taldeetan. Datu erlatiboek dagokienez, 25 eta 44 urte artekoen artean gehiago dira (% 4,3), eta horiek dira, halaber, langabezia absolutu gehien dutenak (330). 45 urte eta gehiagoko taldean 41 langabetu gehiago dauden abuztuan.

Sektoreka, lehen sektorean izan ezik (-% 1,8), erregistratutako langabezia igo egin da: Zerbitzuetan izan da gorakadarik altuena (% 2,4 eta 358 langabe gehiago). Industrian % 0,5 (7 gehiago) eta Eraikuntzan % 0,8 (11 gehiago). Lehen enpleguaren bila ari direnen artean -% 1,2 jaitsi da langabezia (39 langabe gutxiago).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu handienetan (G-5) erregistratutako langabezia-tasa % 0,7 handitu da aurreko hilaren aldean. Sevillak izan ezik (-% 0,1), taldeko hiri guztiek gora egin dute. Gorakadarik nabarmenena Bartzelonan erregistratu da (% 2,0), eta txikiena Madrilen (% 0,4).

Euskal hiriburuen taldean (G-3) langabeziak % 1,5 egin du gora. Langabeziak gora egin du Donostian (% 2,9), Gasteizen (% 0,8) eta Iruñean (% 1,4).

Langabeziak gora egin du EAEn (% 3,1) eta hiru lurraldeetan. % 1,3 igo da Araban, % 2,8 Bizkaian eta % 4,6 Gipuzkoan.

Afiliatuak

Abuztuaren amaieran Bilboko enpresetan 189.067 afiliatu zeuden, hau da, uztailean baino 2.217 enplegu gutxiago (% 1,2).

Araubide guztietan afiliazioak behera egin du hilabete arteko konparazioan. Araubide Orokorra izan du beherakadarik handiena, izan ere, 2.167 enplegu galdu ditu aurreko hilabetearekin alderatuta. Atzetik datozkio, hurrenez hurren, langile autonomoen araubide berezia (19 afiliazio galdu dituena), etxeko langileena (8 murriztu dituena) eta araubide bereziak (nekazaritza eta itsasoa), 23 afiliazio galdu dituztenak.

Erregistratutako langabeak

Hilabete arteko Δ

Abuztua	21.717 pertsona
	% 1,5 ▲
Emakumeak	% 1,9 ▲
Gizonak	% 1,1 ▲

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	% 1,5 ▲
G-5	% 0,7 ▲
G-3	% 1,5 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete arteko Δ

Abuztua	189.067 pertsona
	% 1,2 ▼
Araubide orokorra	% 1,3 ▼
Autonomoak	% 0,1 ▼
Etxeko Sistema Berezia	% 0,1 ▼
Beste batzuk	% 3,1 ▼

Sektore guztietan egin du afiliazioak behera, lehen sektorean izan ezik, bere horretan mantendu baita (% 0,0): zerbitzuek 2.107 afiliatu galdu dituzte (-% 1,2), eraikuntzak -98 (-% 1,1) eta industriak -12 (-% 0,1).

Zerbitzuetan, eta datu absolutuetan, nabarmentzekoak dira hezkuntzan, beste zerbitzu batzuetan, merkataritzan eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan erregistratu diren beherakadak. (2.608, 179, 127 eta 92 gutxiago, hurrenez hurren). Gorakadak egon dira, besteak beste: jarduera administratiboetan eta zerbitzu osagarrietan, ostalaritzan eta gizarte zerbitzuetan (431, 383 eta 114).

Urte artean, ordea, enpleguak % 4,5eko gorakada izan du, hau da, 8.128 afiliatu gehiago. Langile autonomoen araubide berezia % 0,1 igo da, eta apurtu egin du 31 hilabetez jarraian jaisteko izan duen joera, non salbuespen bakarra joan den ekaina izan baita.

Sektoreen arabera, zerbitzuek 7.853 afiliatu gehitu dituzte (% 4,8) eta industriak 401 (% 4,7). Eraikuntzak 92 enplegu galdu ditu (-% 1,0) eta lehen sektoreak 34 enplegu (-% 12,5). Nabarmentzekoak dira, bereziki, hezkuntzan, administrazio-jardueretan eta zerbitzu osagarrietan, merkataritzan eta osasunean izandako igoerak (1.208, 1.203, 1.140 eta 997 afiliatu gehiago, hurrenez hurren).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak -% 0,2ko jaitsiera islatu du aurreko hilaren aldean. Enpleguak Sevillan eta Zaragoza soilik egin du gora. Talde horretako gainerako hiriburuetan behera egin du. Madrilen izan da hazkunderik txikiena (-% 0,1) eta Valentzian nabarmenena (-% 0,6).

G-3ko hiriburuetan, afiliatuen kopurua, batera hartuta, % 0,1 igo da. Iruñeak afiliatuak irabazi ditu (% 1,2), eta Donostiak eta Gasteizek -% 0,1 eta -% 0,8 galdu dute, hurrenez hurren.

EAEan, oro har, afiliatutako biztanleria -% 0,4 jaitsi da hilabete batetik bestera. Afiliazioa galdu da lurralde guztietan: Araban eta Bizkaian galera -% 0,6koa izan da bi kasuetan, eta Gipuzkoan -% 0,1koa.

Kontratuak

Abuztuan 9.460 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino -% 1,9 eta 185 kontratu gutxiago. Urtetik urtera areagotu egin dira gizonei egindako kontratuak (91 gehiago) eta emakumeei egindakoak gutxiagotu egin dira (276 gutxiago).

Kontratuak adin-tarte guztietan gutxiagotu dira: gazteenen taldean -% 3,9 (98 kontratu gutxiago); 25-44 urtekoen taldean -% 1,7 (78 gutxiago); 45 urte eta gehiagoko taldean -% 0,3 (9 gutxiago). Erregistratutako kontratuen % 47,1 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (4.455 kontratu), % 25,3, berriz, gazteenei (2.391) eta gainerako % 27,6a, ordea, 45 urte eta gehiagokoei (2.614).

Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Urte artekoa Δ

Abuztua	189.067 pertsona
	% 1,2 ▼
Zerbitzuak	% 1,2 ▼
Eraikuntza	% 1,1 ▼
Industria	% 0,1 ▼
Lehen sektorea	% 0,0 =

Benchmarkina

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	% 1,2 ▼
G-5	% 0,2 ▼
G-3	% 0,1 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Urte artekoa Δ

Abuztua	9.460 pertsona
	% 1,9 ▼
Emakumeak	% 5,5 ▼
Gizonak	% 2,0 ▲
Lehen sektorea	% 76,5 ▼
Industria	% 6,5 ▲
Eraikuntza	% 5,5 ▼
Zerbitzuak	% 2,2 ▼
Kontratatutako pertsonak	% 4,2 ▼

Industrian izan ezik (+% 6,5 eta 36 gehiago), gutxiagotu egin dira sektore guztietan : Zerbitzuetan -% 2,2 eta 192 kontratu gutxiago, Eraikuntzan -% 5,5 eta 16 gutxiago eta Lehen Sektorean -% 76,5 eta 13 gutxiago.

Abuztuko aldi baterako kontratuak kontratu guztien % 78,1 izan dira. 7.398 pertsona kontratatu dira eta % 49,9 emakumeak dira. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,28 kontratu.

MERKATARITZA

Saltoki handiak eta elikagaien kateak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmentek, abuztuan, % 0,7 egin dute gora urte batetik bestera, lan-egutegi homogeenari dagokionez. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 0,4 murriztu dira salmentak.

Elikagaien salmentek % 0,9 egin dute gora 2023ko abuztuarekin alderatuta eta gainerako produktuak maila berean mantendu dira (% 0,5) aldi berean.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko % 1,4ko gorakada izan du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek gora egin dute Gipuzkoan (% 1,1) eta Araban (% 1,7). EAEn, orokorrean, % 1,0 egin dute gora.

Saltoki handiak Bizkaia

Urte artekoa Δ

Abuztua	91,9
Salmenta-indizea	% 0,7 ▲
- Elikadura	% 0,9 ▲
- Gainerako produktuak	% 0,5 ▲
Landunak	% 1,4 ▲

EKONOMIA

Zerbitzuak

Merkatuko beste zerbitzu batzuk sektoreko salmentak, urterik urte, % 1,6 igo dira bigarren hiruhilekoan eta hamahiru hilabetez jarraian gora egin dute.

Jarduera-adar guztiek gora egin dute urte batetik bestera: Informazioa eta komunikazioak eta Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak % 1,9, igo dira bi kasuetan; Garraioa eta biltegiak % 1,6, Ostalaritza % 1,3 eta Administrazio-jarduerak % 1,2. Landunak % 0,7 ugaritu dira urtetik urtera.

Araban beste zerbitzuen salmenta-indizeak % 2,0 egin du gora, Gipuzkoan % 0,6 eta EAEn % 1,4.

Oharra: Bigarren hiruhilekoan, Beste zerbitzu batzuen indizearen oinarri-urtea 2021era aldatu da, eta, ondorioz, erreferentziazko urte horretatik aurrera serieak eguneratu egin dira.

Merkatuko zerbitzuen salmentak. Bizkaia

Urte artekoa Δ

II. hiruhilekoa	125,4
Salmenta-indizea	% 1,6 ▲
Landunak	% 0,7 ▲

Bizkaiko BPGd-a

Bizkaiko barne produktu gordinak % 1,9ko gorakada izan du urterik urte 2024ko bigarren hiruhilekoan. Euskal ekonomian, orokorrean, % 1,8 egin du gora.

Hiruhilekotik hiruhilekorako aldakuntzaren baldintzetan, Bizkaiko BPGd-a % 0,4 igo da eta, ondorioz, hazkundera antzekoa izan da aurreko hiruhilekoan izandakoarekin alderatuta (% 0,4). Bestalde, EAEren hazkundera ere % 0,4koa izan da.

EAE osorik hartuta, jarduera-sektoreek bilakaera positiboa izan dute, Industrian izan ezik, -% 0,4. Gainerakoek gora egin dute: Nekazaritzan (% 0,7), Eraikuntzan (% 0,3) eta Zerbitzuetan (% 0,6).

Oharra. Bigarren hiruhilekoan, EAEko kontu ekonomikoen oinarri-urtea 2022ra aldatu da, Eurostateg ezarritako berrikuspen-politika europarrei jarraiki, eta Kontabilitate Nazionaleko zabalkunde guztietan aplikatuko da. Laster eguneratuko dira 2022aren aurreko serie guztiak.

Barne-produktu gordina Bizkaia

II. hiruhilekoa

Urte artekoa Δ % 1,9 \blacktriangle

Δ Hiruhileko artekoa % 0,4 \blacktriangle

Hiruhilekoko BPGd-a (milioi €) 12.231,45

TURISMOA

Bilboko hoteletan 260.625 ostatu-gau erregistratu dira abuztuan, hau da, -% 3,3ko beherakada izan da urtetik urtera, edo, beste era batera esanda, 8.893 ostatu-gau gutxiago. Hala ere, estatuko bidaiarien artean soilik izan da beherakada (-% 9,4).

Bidaiarien sarrerak ere behera egin du (-% 1,8) eta, era berean, estatuko artean bakarrik egin du behera (-% 8,0). Atzerritarrek urtetik urtera hobera egin dute hirian: % 2,7 hazi dira, % 1,2 gehitu dira haien ostatu-gauak eta abuztuan Bilboko hotel-establezimenduetako sarrera guztien % 60,8 izan dira.

Beherakada txiki bat izan da batez besteko egonaldian eta bidaiari bakoitzeko 2,08 ostatu-gau daude.

Logela eskuragarriko diru-sarrerak 121,6 eurokoak dira eta % 3,1 handitu dira. Bestalde, hoteletako batez besteko tarifak 138 eurokoak dira (+% 6,8).

Ostatu-gauak

Urte artekoa Δ

Abuztua 260.625 ostatu-gau
% 3,3 \blacktriangledown

Hiru izar eta gehiagoko hotelak % 2,4 \blacktriangledown

Gainerako hotelak eta ostatuak % 6,0 \blacktriangledown

Bidaiarien sarrera

Urte artekoa Δ

Abuztua 125.543 sarrera
% 1,8 \blacktriangledown

Nazionalak % 8,0 \blacktriangledown

Atzerritarrek % 2,7 \blacktriangle

Batez besteko egonaldia

Urte artekoa Δ

Abuztua 2,08 ostatu-gau/bidaiari
% 1,4 \blacktriangledown

Sektorearen errentagarritasun-adierazleak

Urte artekoa Δ

Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa (€) % 6,8 \blacktriangle

Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€) % 3,1 \blacktriangle

2024ko Aste Nagusia: Abuztuaren 17tik 25era – 8 gau

Hoteletako ostatu-gauak: 75.907 (-% 2,4 urte artean)

Bidaiarien sarrerak: 36.054 (-% 1,9 urte artean)

Okupazio-maila, plazen arabera: % 81,9

Benchmarkina. Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, urtetik urtera % 10,1 hazi da eta. Gora egin dute Gasteizen (% 11,0), Donostian (% 8,1) eta Iruñean (% 16,0).

Bestalde, Estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauak % 2,3ko gorakada izan dute. Multzo horretako hiriburu guztietan areagotu da ostatu-gauen kopurua. Valentzia izan da gorakadarik handiena: % 6,0.

Benchmarkina

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 3,3	▼
G-5	% 2,3	▲
G-3	% 10,1	▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

GARRAIOA

Aireko garraioa

Bilboko aireportuak 668.814 bidaiari izan ditu abuztuan (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 0,7 eta 4.775 bidaiari gehiago. Emaizta horiei esker, aireportuak abuztuko daturik onena lortu du martxan jarri zenetik.

Hegaldi nazionaletako bidaiarien kopuruak behera egin du, izan ere, 6.278 bidaiari gutxiago izan dira (-% 1,7); hala ere, nazioarteko bidaiarien kopuruak gora egin du % 3,7 eta 11.084 bidaiari gehiago izan dira.

Hilean zehar egindako hegaldiak, iritsieren eta irteeren artean, 4.760 izan dira (-% 1,4), eta garraiatutako merkantziak igo dira (% 32,0).

Urtarriletik abuztura 4.514.590 bidaiari metatu dira, aurreko urteko aldi berean baino % 8,2 gehiago, hau da, 343.779 bidaiari gehiago.

Benchmarkina. Espainiako bost hiri nagusiei dagokienez (G-5), urtetik urtera % 8,4ko igoera kontabilizatu da. Zaragozan izan ezik (-% 2,5), taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gora egin du. Madrilen izan da hazkunderik nabarmenena (% 9,2) eta Valentzian baxuena (% 4,3).

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, -% 14,5 gutxitu da. Iruñean gora egin du % 2,9. Behera egin du Donostian, -% 11,9, eta Gasteizen, -% 25,7.

Aireko garraioa

Urte artekoa Δ

Abuztua	668.814 bidaiari	
	% 0,7	▲
Nazionalak	% 1,7	▼
Nazioartekoak	% 3,7	▲
Salgaiak (kg)	% 32,0	▲
Hegaldiak	% 1,4	▼

Benchmarkina

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 0,7	▲
G-5	% 8,4	▲
G-3	% 14,5	▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Itsas garraioa

Bilboko Portuak 2,4 milioi tonako trafikoa izan zuen abuztuan, hau da, -% 4,5 gutxiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan abuztuan kudeatutako salgaien % 56,2 izan da, eta urte arteko -% 13,6ko beherakada izan du. Solteko gaien trafikoa % 3,4 igo zen (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorrak % 14,0.

Abuztuan 7 itsas bidaia erregistratu dira.

Metatutako datuari dagokionez, urtarriletik abuztura, 23,4 milioi tona lortu dira portuko trafikoa, aurreko urteko aldi berean baino % 5,9 gehiago.

Itsas garraioa Abuztua

Urte artekoa Δ

Portuko trafikoa	2,41 milioi tona
	% 4,5 ▼
Bidaiariak garraiatzea	48.933 bidaiari
	% 7,9 ▼
Itsas bidaiariak (kop.)	22.145 itsas bidaiari
	% 25,0 ▼

ADIERAZLEEN TAULA


	Azken data	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.717	1,5*	2024ko abuztua
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	189.067	-1,2*	2024ko abuztua
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	9.460	-1,9	2024ko abuztua
Biztanleria aktiboa (milakotan)	179,4	10,7*	2024ko II. HH
Biztanleria landuna (milakotan)**	162,6	11,8*	2024ko II. HH
Langabeak (milakotan)	16,8	0,6*	2024ko II. HH
BAlko langabezia-tasa (%)	9,35	-0,94 p.p.	2024ko II. HH
Merkataritza			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	116,4	0,2*	2024ko abuztua
Afiliatuak**	20.323	5,9	2024ko abuztua
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	108,1	0,8	2024ko II. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	91,9	0,7	2024ko abuztua
Turismoa			
Bidaiarien sarrera	125.543	-1,8	2024ko abuztua
Ostatu-gauak	260.625	-3,3	2024ko abuztua
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaiaria)	2,08	-1,4	2024ko abuztua
Hoteletako okupazio-maila (%)	81,0	-3,1 p.p.	2024ko abuztua
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	121,6	3,1	2024ko abuztua
Ekonomia eta enpresa			
Bizkaiko BPGd	104,0	1,9	2024ko II. HH
Industria-produkzioa (indizea)***	114,2	-1,4	2024ko uztaila
Merkataritza-sozietate berriak	452	2,0	2024ko urt.-eka.
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	125,4	1,6	2024ko II. HH
Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m ²)	4.029	-2,3	2024ko II. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (m ²)	3.000	2,9	2024ko II. HH
Garraioa			
Bidaiarien aire bidezko garraioa	668.814	0,7	2024ko abuztua
Hegaldiak	4.760	-1,4	2024ko abuztua
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	2,4	-4,5	2024ko abuztua

* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. ** Bilboko enpresetan. *** Bizkaiari dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, ElNren, Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuegoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


Erregistratutako langabezia




Afiliatuak




Hotel-gauak



Aireportuko bidaiariak



Bizkaiko BPGd



Salmentak saltoki handietan eta elikagaien kateetan

